

ELKARBIZITZA ^W/_{IK}ASGAI

Kulturaren arteko harrekinetarako proposamena

BITARTEKARIENTZAKO GIDA



ELKARBIZITZA IKASGAI

Kulturen arteko hezkuntzarako proposamena

8-12 urte arteko
neska-mutilekin
lan egiteko

Eskatu diezaiegun umeei euren eskualdean bestelako kultura duten pertsonak bizi diren ikertzeko, zelako aldeak dituzten azaltzeko eta euren taldean bertan ere nolako aldeak dituzten adierazteko.

Esan diezaiegun ohikoa dela hasiera batean besteen aniztasuna gogoko ez izatea, baina bestelakoak badira ere ez direla gaiztoak. Gainerakoei bestelakoak izaten uzten ez diegunean gara gaiztoak.

Esan diezaiegun umeei aldeei esker bizitzeko leku interesgarria dela mundua. Alderik ez balego, ezin izango genukeen ulertu nortzuk garen ere: ezin izango genuke “ni” esan, ez genukeelako alderatzeko “zu” izango.

Esan dezagun norberak gainerakoen aldean bestelakoa izateko duen eskubidea dela berdintasuna.

Umberto Eco

1 _____ 6

**KULTURA
ARTEKO
GIZARTERANTZ**

2 _____ 9

**PERTSONA
GUZTIENTZAKO
GIZARTEA ERAIKI**

3 _____ 11

**NOLA IKASTEN
DIREN BALIOAK
ETA JARRERAK**

4 _____ 12

**BALIOAK ERATZEKO
ERAGILE NAGUSIAK**

- 4.1. Familia, giroa
eta balioen
sorlekua _____ 12
- 4.2. Eskola, balioak
sustatzeko ekintza-
hausnarketa
eremua _____ 13
- 4.3. Hezkuntza-aisialdia,
balioak abian
jartzeko eremu
ez-formala _____ 15
- 4.4. Informazioaren eta
komunikazioaren
teknologiak,
balioen eta
kontrabalioen
barreiatzaileak _____ 18

BITARTEKARIENTZAKO GIDA



5 _____ 20

KULTURA ARTEKO HEZKUNTZA LEHEN HEZKUNTZAN

5.1. Gizarte-esperientzien
arloak derrigorrezko
hezkuntzan _____ 21

6 _____ 25

BALIOAK LANTZEKO ARIKETAK

6.1. Ariketa sozio-
dramatikoak _____ 25

6.2. Sormenezko
ariketak _____ 25

6.3. Esperientziak
eraikitze
talde-ariketak _____ 25

6.4. Lankidetz
sustatzeko
ariketak _____ 26

6.5. Berdinen arteko
tutoretza _____ 26

6.6. Pertsonen arteko
harremanetan
oinarritutako
ariketak _____ 27

6.7. Sentsibilizaziorako
jardunaldiak eta
jaiak _____ 28

6.8. Sarea _____ 28

7 _____ 29

"ELKARREKIN BIZITZEN IKASTEEN" EGITASMOA

8 _____ 34

BIBLIOGRAFIA

KULTURA ARTEKO GIZARTERANTZ

1

Azken urteotan, gure herrialdea inmigrazioaren lehen helmuga da Europako Batasunean, biztanle guztiak kontuan hartuta, atzerriar gutxien dituen herrialdea bada ere. Etorkin horien seme-alabak ere bertora datozenez, kultura aniztasunerako eragile berria sortzen da eskoletan eta behar den moduko erantzuna eman behar diogu.

Eskoletan eta tokian tokiko erkidegoetan, jakin badakigu beste herrialde batzuetako pertsonak daudela, onartu egin behar ditugun beste hizkuntza, kultura, janzkera eta jokabide batzuk agertzen direlako.

Sorterrien edo erreferentziako kulturen arabera, bestelakoak dira oso atzerriko etorkinen seme-alabek dituzten zailtasunak. Oro har, Amerika Latinoko ikasleek hezkuntza-mailan dituzte zailtasunak. Izan ere, maila hori aberastu egin behar dute, ahalik eta epe laburrenean gure ikasleen mailara iritsi ahal izateko. Magrebeko ikasleek gizartearen gaitzespen handiagoa jasaten dute. Beraz, ekintza egokiak garatu behar dira, estereotipoak desagerrarazteko. Ekialdeko Europako ikasleek zailtasun handiak dituzte hizkuntzaren erabileran. Asiako ikasleek, ordea, aukera asko behar dituzte, ahozko hizkuntzan hitz egiteko eta tokian tokiko hizkuntza garatzeko.

Eskola bera leku ezin egokiagoa da zeregin hori garatzeko, ikasketa, curriculum, gizarte, hezkuntza... arloko neurriak dituelako eta gizarte-eragileek eurek, hau da, neska-mutilek, zeresan handia dutelako onartzeko prozesuetan. Ikuspegi hori kontuan hartuta, geure ikasleak hezi behar ditugu, pertsona guztientzako gizartea eraikitzeko, eskolako ekintzaren, aisialdiko hezkuntzako ekimenen eta familien ekintza egokiaren bidez.



ELKARRERKIN BIZITZEN IKASTEN egitasmoa hezkuntzaren kultura arteko ikuspegiari buruz hausnartzeko proposamena da, hau da, erkidego bateko neska-mutilen taldean garatutako partaidetzak behar bezala bermatu eta bideratzen dituen begirada.

Kultura arteko gizartea eraikitzeko hezkuntza-ekintzaren abiaburua kontuan hartuta, elkarreragina da kulturaren funtsezko osagaia.

“
... **PERTSONA
GUZTIENTZAKO
GIZARTEA eraikitzeko
hezi.**”

Kultura arteko gizartea eraikitzeko, beste kultura batzuekin duen harremanean berretsi behar da kultura bera eta, gizarte berria eraikitzean, guzti-guztiek ekarpenak egin ahal dituztela onartu behar da. Izan ere, ekarpen horiek trukea eta balioespen kritikoa izango dituzte helburu.

Kultura arteko ikuspegiak kultura anitzeko ikuspegia gaintitzen du, kultur aniztasuna egiaztatu eta onetsi ondoren, berezko hezkuntza-egitatzat hartzen duelako kultur elkarreragina.

Kultura arteko ikuspegia kontuan hartuz gero, kultur harremanak gizartea eraikitzeko proiektu baten barruan daudela pentsatu beharra dago, eta proiektu hori pertsona guztientzako eskubide eta aukera berdintasunean oinarritzen da.

Kultura arteko gizartearen alde eginez gero, estatuko gutxiengoentzako edo inmigranteentzako barik, biztanle guztientzako elkarreraginak eta ekimenak garatu behar dira.

Kultura arteko hezkuntzak egoera txarragoan bizi diren gutxiengo kulturalentzako aukera-berdintasuna sustatzea du helburu. Bestetik, konpentsaziorako alderdiak ditu eta hezkuntza-premia bereziak dituzten taldeentzako neurriak eta jarduketak jartzen ditu abian. Premia horiek zentzu zabalean hartzen badira ere, eskola-eredu berri batetik garatzen dira: kultura arteko eskola.

Urteen joan-etorrian eraikitzen den errealitatea da kultura arteko hezkuntza. Horrez gain, elkarren arteko harremana eta talde-eraikuntzako prozesu hori helduek baino berezkotasun handiagoz biziko duten neska-mutilen belaunaldiak ditu oinarri.

“
... **kultura arteko
hezkuntzaren
abiaburua kontuan
hartuta,
ELKARRERAGINA da
kulturaren funtsezko
osagaia.**”

1
Familiek, eskolek, aisialdiko hezkuntza-zentroek eta gainerako hezkuntza-eragileek kultura arteko ikuspegitik landu beharko dute euren hezkuntza-partaidetza, beste

... beste kultura
batzuk EZAGUTU eta
eurekin HITZ EGITEKO
GOGOA sustatzeko
eta sendotzeko
ereduak abian jarri.

kultura eta bizimodu batzuk ezagutu eta eurekin hitz egiteko gogoia sustatzeko eta sendotzeko ereduak abian jarri ahal izateko. Eredu horietan, hezi egingo da, beste pertsonaren lekuan jartzeko gai izateko eta edonolako kultur harrokeriatik ihes egiteko. Azken batean, hezkuntza-partaidetzarako eredu

horrek giza, gizarte eta politika arloko eskubide-berdintasunaren babesa izango du oinarri eta edonolako bazterketa gaitzetsiko du.

Kultura arteko ikuspegian oinarritutako hezkuntza-proposamenaren helburu nagusia kontuan hartuta, ikasleek, etorkinek nahiz etorkinak ez direnek, gizarte eta kultura arloko eskumen sendoa lortu behar dute, hau da, gure gizartearen eraikuntzan eragile aktibo moduan adierazteko gaitasuna emango dieten trebetasunak eta jarrerak lortu behar dituzte.

PERTSONA GUZTIENTZAKO GIZARTEA ERAIKI



Zenbait arrazoren ondorioz
(gizarte, ekonomia, politika...
arlokoak), beste herrialde

**batzuetatik gero eta pertsona gehiago iristen
direnez, hiritarrek eta erakundeek ezinbestean
lan egin behar dute, pertsona guztiak aintzat
hartzen dituen erkidegoa eraikitzeko.**

Ahalegin horretan, lan egiteko modua garatu beharra dago, neska-mutillak gizarteratzeko oinarritzko hiru arloetan (familia, eskola eta aisialdia) guztiontzako gizarteak eraikitzeko, elkartasunerako balioak bultzatzeko eta balio horiek sustatu eta elkarbizitzaren oinarri den kultura arteko kontzientzia eratzeko moduko jarduerak garatzeko.

Guztiontzako herrialdean, gizarteak bera abegitsua eta solidarioa da eta kulturen arteko elkarreragina dimentsio egokia da, segregazioa edo bazterketa barik, lankidetzak sustatzen duelako.

Hezkuntza helburu duen gizarteak aniztasunaren tratamendua hartu behar du bere gain. Horretarako, hezkuntzako tresnak, estrategiak eta baliabideak ezarri behar ditu, neska-mutil guztien eta hiritar guztien garapena behar den modukoa izan dadin.



2

Ikasleek ez dute kultura artekotasuneko balioak euren gain hartzerik, familietan, ikastetxeetan, aisialdiko zentroetan, udaleko gizarte-bizimoduan, komunikabideetan... jarduerak baztertzaila eta bereizleak badira.

Zeintzuk dira giro abegitsua sortzen duten erakunde-balioak? Noiz hitz egin ahal izango dugu giro oneslea eta solidarioa duen gizarteaz, eskolaz, familiaz, aisialdi-elkarteaz, gizarte-antolamenduaz?

Erakunde bateko giroko osagai batzuek bere izaera abegitsua eta oneslea zehazten dute:

**Pertsona guztiak
ADEITASUNEZ
ONARTZEKO
sentimenduak
sustatzen ditu.**

- Pertsona guztiak adeitasunez onartzeko sentimenduak sustatzen ditu.
- Banan-banako lehiakortasunaren aldean, elkarren arteko laguntzarako jarrerak eta jarduerak garatzen ditu neska-mutilen artean eta profesionalen zein gizarte-eragileen artean (irakasleak, begiraleak, gurasoak...).
- Bestelako pertsonen gutxiespenaren aldean, elkarren arteko begirunerako giroa garatzen du.
- Profesionalen eta kanpoko eragileen arteko lankidetzaz sustatzen du (familia, begiraleak, irakasleak, gizarte-eragileak...).
- Erkidegoko gainerako erakundeen konpromisoa bultzatzen du onarpenerako proiektu bateratuetan.
- Askok eskatzen die neska-mutilei, euren izaera edozein dela ere.
- Gurasoen, irakasleen, begiraleen eta gainerako gizarte-eragileen ustez, neska-mutil guztiak dira garrantzitsuak.
- Helduak eta umeak pertsona moduan tratatzen dira, eta zeresan handia dute gizartean eta erakundeetan.
- Azken batean, erakunde horretan, kultur truke aberasgarriak bultzatzen dira, guzti-guztiek gainerako pertsonen balioespenean eta berdintasunean hazteko aukera izan dezaten.

NOLA IKASTEN DIREN BALIOAK ETA JARRERAK

3

Behar den moduko gizarte eta erakunde giroa sortzeko jarduera egokia kontuan

hartuta, balioetan oinarritutako hezkuntza ez da inoiz izan behar irakasteko prozesua.

Balioetan oinarritutako hezkuntzaren oinarriak ezagutza eta hausnarketa direnez, zentzuzko ikuspegitik eta metodologiatik jorratu beharra dago hezkuntzako zereginetan.

Balioetan oinarritutako hezkuntza ezin da prozesu abstraktua izan, ekintza-hausnarketa-ekintza dinamikan oinarritu behar delako. Hona hemen garapena:

1. Pizgarri batetik edo inguruneko banan-banako edo taldeko aldeztasunetik esperientzia zuzenetik abiatu (ikusiko dugunez, pizgarri zuzentzaileak dira pasarteak).
2. Esperientzia horretatik, barneraketa kritikoa, hausnarketa sustatu, banan-banako aukera askea sortzeko (norabide horretarantz doaz pasarteetako ariketak).
3. Eraldatzeko moduko konpromisorantz jo, banan-banako jarduerak eguneroko bizimoduan ezarri ahal izateko.

Hona hemen balioetan oinarritutako hezkuntzaren estrategia nabarmenenak: elkarriketa, lankidetzarako ekintza, jokoa eta era guztietako ariketak, umeak elkarlanaren eta elkarerreraginaren bidez euren bizitzaren erantzule izan daitezten.

Hezkuntza-prozesuko edozein une egokitu daiteke, jarrerazko edukiak lantzeko, curriculum-eremuetan, tutoretzan nahiz curriculumez kanpoko ariketetan (eskolako jantokia, jolas-ordua edo txangoak). Hezkuntzako eragile guztietan, urteen joan-etorrian egin beharreko bidea da; esate baterako, familian, eskolan edo aisialdiko hezkuntza-erakundeetan.



BALIOAK ERATZEKO ERAGILE NAGUSIAK

4

ELKARREKIN BIZITZEN IKASTEN
proposamena balio anitzeko
ikuspegitik sortu da, eta bere
orientabideek euren partaidetza antolatzeko
aukera eskaintzen diete hezkuntza-eragileei,
sei pasarteetan oinarrituta.

4.1

**Familia, giroa
eta balioen
sorlekua**

Eraketa edozein dela ere, oraindik ere, familiaren zeregin nagusia da umeen etorkizunerako eta garapen psikikorako funtsezko premia eta harremanei erantzutea. Beraz, familia bera da kulturaranzko lehenengo urrats garrantzitsua, kideen balio-sistema, pentsaera eta jokabidea antolatzen dituelako, bere kultura kontuan hartuta. Gizarteratzea bera da familiaren bigarren zeregin nagusia. Zeregin horren bidez, gizartean onartutako balioekin harremanetan jartzen ditu umeak eta taldearen irudikapenak eta balioak helarazten dizkio, ezinbestekoak direlako neska-mutilak garatzeko eta egokitzeko.

Familiaren balioak, arauak eta errituak familiaren egonkortasunaren zerbitzura daude, familien ezaugarri bereizgarriak dira eta jabetza-zentzuaren zerbitzura daude. Segurtasuna, begirunea, tolerantzia, elkartasuna edo erantzukizuna dira balio horiek.

Honako balio hauek sendotzen dituzte harmonia, ongizatea eta maitasuna ezaugarri dituzten etxeek:

- Ulermena, tolerantzia, estimua eta pertsona guztien zein naturaren babesa.

- Inguruko pertsonen ongizatea babesteko kezka.

- Segurtasuna edo segurtasunaren balioespina, harmonia eta pertsonen arteko zein gizarteko oreka.

- Beste pertsonentzat kaltegarriak izan ahal diren edo gizartearen asmoak edo arauak urratzen dituzten ekintzen edo irriken murrizketa.



Batez ere, familiaren bidez helarazten omen dira balioak, eta familia-giroak berak, gizarte eta maitasun osagai guztiak kontuan hartuta, ematen die zentzua. Dena dela, badago beste eragilerik: berdinak, eskolak, gizarte-komunikabideak...

Familiak zeresan handia du BALIOAK eratzeko orduan.

4.2

Eskola, balioak sustatzeko ekintza-hausturaketa eremua

Eskolari kulturaren kaleidoskopioaren bidez begiratzan badiogu, bestelako egoera miretsiko dugu ikusteko angeluaren arabera. Geure kulturaren zenbait adierazpide ikusteko eta beste ñabardura batzuk, garapen-bidean dauden beste kultura batzuk ezagutzeko aukera eskaintzen digu: balio berriak; kalean, auzoan, eskolan beste herrialde batzuetako pertsonak daude; elkarrizketaren aniztasuna, monolitismo ideologikoaren aurrean; bakearen bilaketa, indarkeriaren aurrean; adostasuna, intolerantziaren aurrean...

Eskolak bere jarrera izan behar du errealtate horren aurrean. Gertakari horren aurrean, inolako jarrerarik ez badu, aukera bat egiten duela jakin behar du, eskolak berak une oro helarazten dituelako kulturako jarrerak eta balioak. Horren ondorioz, helburuak zehaztu behar ditu curriculum-proiektuan eta honako alderdi hauei buruzko edukiak, metodologiak eta ebaluazio-moduak proposatu behar ditu:

- Nork bere burua eta gainerakoak ulertu, onartu eta errespetatu eta hizkuntza zein kultura aniztasuna balioetsi, herriek eta gizakiek euren nortasunari eusteko eskubidea dute eta.
- Nork bere kulturako eta gainerakoen kulturako osagaiak (ohiturak, hizkuntza, sinesmenak, balioak, gizartea, ekonomia) eta elkarreraginak ezagutu eta modu kritikoan balioetsi.
- Pertsonen, taldeen eta herrialdeen arteko arazoak konpondu eta sortzen dituzten zergatiak eta arrazoiak zeintzuk diren jakin.
- Gizartean bizitzeko moduko trebetasunak, baliabideak, tresnak eta jarrerak eskuratu.

4

- Banan-banako nortasuna eta buru-estimua sustatu eta nork bere taldea balioetsi eta errespetatu.
- Bete-beteen parte hartu aurreiritzi guztien, bazterketaren eta bidegabekeriaren aurka, bai eta norberaren taldean bertan islatzen direnen aurka ere.
- Beste pertsona batzuen kultur adierazpenak ulertu, malgutasunez jokatu euren aurrean, ingurukoak ezagutzeko gogoaz azaldu eta euren balioak zeintzuk diren jakin.

Ikasgelako bertako eguneroko jardura bezain garrantzitsuak dira ikastetxeko bertako Hezkuntza Proiektua eta Curriculum Proiektua. Bertan, irakasleak egunero daude elkarreraginean gizartearen errealitatea eskala txikian islatzen duten ikasleekin. Izan ere, benetako mundu txikia dela esan daiteke.

Eguneroko esperientzia hori milaka xehetasunetan adierazten da: banan-banako harremanak, iritsiak, jarrerak, abian jartzeko arauak, aitzindarien garapena, ezkutuko jarreraren agerpena eguneroko jokabidean, onartzeko eta gaitzesteko mugimenduak, elkarriketa, tolerantzia, intolerantzia, gizarteratzea eta segregazioa, bestearen onarpena edo gaitzespena, ikasgelako eta ikasgelen arteko harremanak jolas-orduetan, eskolaz kanpoko jarduerak, isilmandatuak, estereotipoak... Horiek guztiak prozesu baten osagaiak dira, eta irakasleetan ere badute eraginik, euren balioespenak, jarrerak, ideologiak eta aurreiritziak ere badituztelako, gizartearen beraren bizipenei dagokienez.

Hori dela eta, hezkuntza-ekintza diseinatzeko orduan, irakasleen eta tutoreen jardueran kontuan hartu beharreko zenbait osagai aipatu behar dira:

- Era guztietako kulturei buruzko ezagutzak sartu arlo batzuetan eta jarrerak zein balioak sustatu arlo guztietan.
- Prozedurak eta estrategiak abiaburu horien arabera izan behar dira: lankidetzan oinarritutako ikaskuntza, lan-talde heterogeneoak, gatazken konponbide egokia, eztabaidak, arauen azterketa eta adostasuna...

... ikasleek eskala txikian islatzen dute gizartearen errealitatea, eta MUNDU TXIKIA osatzen dutela esan daiteke.

- Arrazakeriaren aldekoak ez diren hizkuntzak erabili eta jarrera adeitsuari eutsi beti.
- Beste talde kultural batzuetako pertsonak gonbidatu ikastetxean eta ikasgeletan laguntzera.
- Ikasleen esperientziatik abiatu, eztabaidak aberasteko, arazoak adierazteko eta adimeneko arazoak sortzeko. Horrez gain, euren adierazpenak ez gutxietsi sekula.

4.3

Hezkuntza-
aisialdia, balioak
abian jartzeko
eremu
ez-formala

Aisialdian oinarritutako hezkuntzan, bestelako gizarte-eskaintzek nabarmentzen ez dituzten giza balioak garatzea da funtsezkoena:

**Ikasleen BIZIPENEN
eztabaidak
abiarazteko erabiltzeko,
arazoak adierazteko
erabiltzeko...**

Adierazpen eta sormen kulturalerako aukera.

- Jolaserako eta jairako aukera.
- Herri-kulturarekin eta inguruko gizarte-erkidegoarekin sustraitzeko aukera.
- Beste batzuekin doan bizitzeko aukera.
- Nork bere burua, mugak, kontraesanak eta aukerak ezagutzeko aukera.
- Gizarteak proposatutakoa ez beste bizimodu bat sortzeko aukera.
- Nork bere buruaren, gainerakoen eta errealitatearen aurrean duen jarrerari buruzko azterketa kritikoa egiteko aukera.
- Gizarte zein politika arloko konpromisoa eta konpromiso humanista hartzeko aukera. (Pedró, F. 1984).

Azken batean, giza aukerak aurkitu behar dira berriro, aisialdiaren bitartez. Aisialdia ez da jarduerak garatzeko moduko denbora-espazio lekutzat hartu behar, gizatasuna berreskuratzeko esparrutzat eta aukeratzat baizik.

4

Baldintza egokietan, neska-mutilak honako honetarako gai direla konturatzen dira aisialdian:

- Euren esperientziatik ikasi.
- Esperientzia-esparru berriak ezagutu.
- Zeresan handiagoa eskaintzen dieten harreman-moduak eraiki.

Laburbilduz, neska-mutilek euren bizimoduko osagai eta arau guztiak menperatzen badituzte, interpretaziorako, ekintzarako eta partaidetzarako irizpideak ekoitzi ahal izango dituzte, bizi dituzten errealitateak eraiki eta aldatzeko orduan.

Era guztietako egoeren aurrean, euren autonomia, bereizteko irizpideak, jarduteko urratsak eta independentzia lortzen badituzte, sendotasun handiagoz jarriko dituzte oinak errealitatean, ahalik eta onura handiena aterako diote, gero eta heldutasun handiagoz jokatu dute eta, behar izanez gero, aldaketa bultzatu dute.

... aisialdia,
GIZATASUNA
berreskuratzeko
esparrua eta aukera.

Elkarren arteko laguntzarako eta gizarte-lankidetzarako prozesuetan trebatzea da berdinen arteko elkarbizitzaren oinarritzko osagaietako bat. Elkarren arteko laguntza abian jartzea, lankidetzan eta elkartasunean trebatzea oinarri-oinaritzkoa da hiritar aktiboak eta arduratsuak eratzeko orduan, eta aisialdian oinarritutako hezkuntzako mugimendu asko eta asko une honetan egiten ari diren ekarpenen artean dago.

Aisialdian oinarritutako hezkuntzak zenbait hezkuntza-premiari eman ahal die erantzuna; esate baterako, gizarte-premiei, hau da, asetzeko orduan beste pertsona batzuen agerpena behar duten premiei. Hona hemen premia horiek:

- **Afiliazioa edo partaidetza.** Erakundeetako, gizarteetako... partaide izanez gero, beste motibazio korapilotsu batzuk asetzen dira; esate baterako, mailarena. Lagun hurkoekin egonez gero, bestelako bulkada ugari bete ahal dira. Afiliazioak lotura estua du menpetasun-premiarekin. Laguntza eskatzera,

onartuak izatera, gure ordeztu begiratzen duen norbait aurkitzera bultzatzen gaitu.

- **Gizartearen onarpena.** Gure lagun hurkoen onarpena behar dugu, egiten ditugun ekintza guztietan. Horri esker, gure taldean nagusi diren arauetara egokitzen gara. Gizakiok oso azkar ikasten dugu helburuak lortzen eta lagun hurkoen estimua irabazten.

ELKARREN ARTEKO laguntzarako eta lankidetzarako prozesuetan irebatzea da berdinen arteko elkarbizitzaren oinarritzko osagaietako bat.

- **Maila.** Oro har, pertsona guztiek nolabaiteko maila lortu nahi dute taldean bertan, euren lagun hurkoen artean. Hori dela era, argi eta garbi dago besteek errespetatzea eta preziatzea nahi dugula. Mailak gu geu garena eta

gure taldea dena hartzen du kontuan. Horri lotuta, beste batzuk ere badaude; esate baterako, ospe eta botere premia. Ospeak zenbait sinbolo ditu oinarri, eta gure hurkoarekin modu onean alderatzeko aukera eskaintzen digute.

- **Segurtasuna.** Segurtasun-sentimendua behar-beharrezkoa da, gaur egungo gizartean, batez ere (seguru sentitu behar gara geure lanean). Gu geu ez ezik, gizarte-taldea, erkidegoa, ingurune baldintzak... ere hartzen ditu kontuan segurtasunak.
- **Onura.** Arrakasta lortzeko eta porrota saihesteko bulkada da.

4.4

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, balioen eta kontrabalioren barreiatzaileak

Ezagutzaren gizartean bizi garenez, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak ezinbesteko tresnak dira jarrerak eta balioak garatzeko, barreiatzeko eta sendotzeko.

Hausnartu egin behar dugu, teknologia horiek nola erabiliko ditugun jakiteko. Horrela, bada, irudiak igorri, ideiak barreiatu eta kultura artekotasunaren dimentsio onak garatzeko moduko ezagutza sustatuko dugu. Horretarako, euren dimentsio orokorra erabiliko dugu eta pertsonen zein taldeen garapenean duten eragin handia hartuko dugu kontuan.

Oro har, guztiok ditugu ezagutzen ez ditugun pertsonen gaineko iritzia eta «etiketa jartzen diegu». Beharbada, konturatu ere ez gara egiten, baina honako hauen eraginpean gaude:

- Gainerakoei buruz ikusten ditugun irudiak.
- Eurei buruz esan eta idazten dena.
- Jendeak eurekin duen jokabidea.

Jakin badakigu beldurrak eta aurreiritziak

oso-oso sustraituta daudela eta gurasoek seme-alabei igortzen dizkietela belaunaldiz belaunaldi.

Sustraiok hain sakonak direnez, pertsonak ez dakite aurreiritzi horiek dituztenik, harik eta beste arraza edo kultura bateko pertsona batekin harreman hurbila izan behar duten arte. Egoera horien aurrean, inork ez du jarrera neutralik, eta, pertsona horren irudia

ona dela nahita adierazten ez bada, gure aurreiritzi txarrak bertan berretsiko dira oraindik, horretaz konturatzen ez bagara ere.

Informazio eta komunikazio bideen ahaleginek pertsonen irudi ona aurkeztean izan behar dute helburu, azaldutako beldurrak eta aurreiritziak ordezkatu ahal izateko.

Beste kultura edo erlijio bateko atzeritarrak komunikabideen bitartez aurkezteko orduan, jokabidea berbera izan behar da beti:

... irudiak igorri,
ideiak barreiatu
eta kultura
artekotasunaren
DIMENTSIONAK
garatzeko moduko
ezagutza sustatuko
dugu.

1. Beste edozein pertsonarentzat onargarriak diren baldintzetan aurkeztu.
2. Baldintza txarretan barik, baldintza egokietan aurkeztu; baldintza pasiboetan barik, baldintza aktiboetan.
3. Bazterketa-egoeretan ez ezik, ohiko egoeretan ere aurkeztu euren erkidegoan.
4. Adin eta erkidego bereko beste pertsona batzuen ohiko egoeretan aurkeztu. Neska-mutil atzeritarrak erkidegoko gainerako neska-mutilak bezalakoak dira.
5. Euren taldeko pertsonekin ez ezik, erkidegoko beste pertsona batzuekin ere agertzen direneko egoeretan aurkeztu.
6. Euren gaitasunak eta zailtasunak nabarmentzen ez dituzten egoera eta jarreretan aurkeztu.
7. Neska-mutil etorkinek euren kabuz hitz egin behar dute, ez bitartekarien bidez.

... pertsonak ez
dakite AURREIRITZI
horiek dituztenik,
harik eta beste arraza
edo kultura bateko
pertsona batekin
harreman hurbila izan
behar duten arte.

KULTURA ARTEKO HEZKUNTZA LEHEN HEZKUNTZAN

S

Ulergarritasuna da etapa honetako oinarritzko abiaburua, hau da,

oinarrizko hezkuntza bateratua denez, ikasle guztiei eskaini behar dizkie prestakuntza-aukera berberak eta antzeko hezkuntza-esperientziak, ikasleak bestelakoak badira ere. Abiaburu horretan aniztasuna nola tratatzen den kontuan hartuta, ikasleen hezkuntza-premiei aurre egin behar die eta ikasgeletako bestelako interes, motibazio eta gaitasun heterogeneoetara egokitzeko gai izan behar da.

Etapako helburu nagusiek xedeak zehazten dituzte. Horrela, bada, pertsonen garapen osoa sustatzeko gaitasunak eratzten dira nortasunaren bost arloetan: adimena, motorra, norberaren oreka eta maitasuna, pertsonen arteko harremana eta gizarteratzea.

Hezkuntzaren asmoen adierazgarri direnez, helburuek lehentasun-
ezko lekua hartzen dute etapako curriculumean, arlo guztietarako hezkuntza-xedea zehazten dutelako eta zikloak eta curriculumak garatzeko gainerako ekintzak antolatzen dituztelako.

“... **ANIZTASUNA** nola tratatzen den kontuan hartuta, ikasleen hezkuntza-premiei aurre egin behar die.”

Neska-mutil guztiei hezkuntza bateratua eskaintzea da Lehen Hezkuntzaren **HELBURUA**. Horrela, bada, oinarritzko osagai kulturalak eskuratuko dituzte, mintzamenari, irakurmenari, idazmenari eta zenbatespenari dagozkien ikaskuntzak lortuko dituzte eta ingurunean jarduteko autonomia izango dute pixkanaka-pixkanaka.



KULTURA ARTEKO HEZKUNTZAREKIN LOTURA ZUZENAGOA DUTEN BALIOEN GARAPENAREKIN ZERIKUSIA DUTEN HELBURUAK

1. Autonomiaz jokatu ohiko jardueretan eta taldeko harremanetan eta ekimenak izateko eta maitasun-harremanak ezartzeko aukerak garatu.
2. Taldeko jardueren plangintza egiten eta jarduerok prestatzen lagundu, demokraziaren arabera ezarritako arauak onartu, norberaren helburuak eta interesak egituratu beste taldekideen helburu eta interesen bidez, bestelako ikuspegiak errespetatu eta erantzukizunak nork bere gain hartu.
3. Harreman orekatuak eta konstruktiboak ezarri gizarte-egoera ezagunetan dauden pertsonekin, elkartasunez jokatu eta sexuan, gizarte-mailan, sinesmenetan eta banakako zein gizarteko beste ezaugarri batzuetan oinarritutako bazterketak gaitzetsi.
4. Kultur ondarea ezagutu, balioetsi eta gozatu, artatzen eta hobetzen lagundu eta hizkuntza zein kultura aniztasuna errespetatu, herrien eta gizakien eskubidea da eta. Horretarako, eskubide horrekiko interesa eta errespetua garatu.
5. Bizitza eta giza elkarbizitza arautzen duten oinarritzko balioen garrantzia onartu eta euren arabera jokatu.

5.1

Gizarte-esperientzien arloak derrigorrezko hezkuntzan

Historian zehar, giza taldeek garrantzi handia eman diote euren kultura belaunaldi berriei helarazteko premiari. Gizarteratzeko zeregin horretan, ikasleak hezten dira, euren bizileku den gizartea, gizartean bertan eta beste gizarte batzuetan sortzen diren arazoak, euren iragan historikoa eta euren lurraldea ezagutzeko. Bestetik, hiritar moduan prestatzen dira, betebeharrak euren gain hartzeko, euren eskubideak erabiltzeko eta tolerantzia, elkartasuna zein partaidetza garatzeko.

Gure gizartean, eskolak bere gain hartu behar duen gizarte eta kultur aniztasuna dago. Horretarako, desberdintasunak orekatzeko osagaiak sustatu behar ditu eta tolerantzian zein errespetuan oinarritutako balio-sistema garatu behar du, ezagutza, elkartasuna eta partaidetza kontuan hartuta.



S

Lehen Hezkuntzan, Ingurunearen Ezagutzaren arloan jorratzen da gizartearen ezagutza, eta errealtatera egindako esperientzia bidezko hurbilketa orokorra du ezaugarri bereizgarri, banan-banako, gizaki eta bizipen alderdiak azpimarratzen direlako. Arlo horrek oinarritzko osagaiak eskaintzen ditu, norberaren autonomia garatzeko eta partaidetza-taldeekin eta bizileku den ingurune naturalarekin identifikatzeko; garbitzeko, elikatzeko eta zaintzeko ohiturak autonomiaz eskuratu eta abian jartzeko; galdetzeko, arakatzeko eta bilatzeko gaitasunak garatzeko, eguneroko esperientziak berak sortutako arazoak behin eta berriro konpontzean; eta nortasuna eta gizartearen orekaz eta elkartasunez garatzeko moduko jarrerak eta balioak eskuratzeko.

... jokatzen gaitasuna duten HIRITARRAK prestatzea da oinarritzko helburu nagusia.

Arlo horrek zenbait egoera, motibazio eta ekarpen garrantzitsu eskaintzen ditu, jarrerazko edukiak lantzeko orduan, autonomiari eta ni pertsonalaren garapenari eta gizarte-dimentsioari begira. Horrela, bada, jarrerazko hiru ardatz egituratzen dira: pertsonalizazioa (norberaren autonomia eta nortasuna); gizarteratzea (taldeko partaide izatea eta bertan parte hartzea) eta segurtasuna eta garbiketa.

Arloko edukien aukeraketak bizileku duten gizartearen arduraz, jakinaren gainean eta ikuspegi kritikotik jokatzen gaitasuna duten hiritarrak prestatzea du oinarritzko helburu nagusi, gizartearen bera ulertzeko eta eraldatzeko beharrezko tresnen lorpenaren bidez.

INGURUNEAREN EZAGUTZAREN ARLOKO HELBURU NAGUSIAK

1. Taldeko jardueretan parte hartu. Horretarako, jokabide konstruktiboa, arduratsua eta solidarioa izan, norberaren eta gainerakoek ekarpenak balioetsi helburu erkideen arabera eta abia demokratikoaren oinarritzko abiaburuak errespetatu.



2. Berezko ezaugarriak eta berezitasunak dituzten gizarte-taldetakoak direla onartu eta balioetsi (elkarrekin bizitzeko jarrerak, taldekideen arteko harremanak, ohitura eta balio bertsuak, hizkuntza berbera, interesak...). Horretarako, beste talde batzuekin dituzten aldeak errespetatu eta balioetsi eta edonolako bazterketa gaitzetsi.
3. Gatazka bera aldeak onesteko sistema demokratikotzat hartu eta aldatzeko zein gainditzeko eragile moduan erabili taldeetan bertan.

INGURUNEAREN EZAGUTZAREN ARLOKO EDUKIAK

1. Pertsonak errespetatu eta maitasun-harreman onak balioetsi eta jarrera sexistak gaitzetsi. Sexualitatearen gizarte eta kultur alderdiak balioetsi.
2. Taldeko jardueretan parte hartu, zereginak nork bere gain hartu eta ezarritako arauak errespetatu.
3. Lan eta lanbide guztiak balioetsi, bai eta gizartean bertan duten eginkizuna ere.
4. Erantzukizunez eta lankidetzaz parte hartu talde-lanean eta taldeko jardueretan.
5. Elkartasuna eta ulermena sustatu, banan-banako eta taldeko arazoan aurrean. Benetako edo gezurrezko gatazkak gainditu, elkarrizketaren eta negoziaketaren bitartez.
6. Era guztietako lanak (teknikoak, eskuzkoak...) eta langileak balioetsi. Trebetasun horiek garatzen dituztenek lan erkidean duten ekarpena balioetsi.
7. Teknologia bizitzan sortutako aldaketak onartu.
8. Garatzeko orduan, komunikazio-bideak eta ingurumenari zor zaion begiruneak osatzen dituzten abantailen arteko beharrezko orekaren inguruko kontzientzia hartu.
9. Errespetua bultzatu, garraiobide publikoen erabileran eta zirkulazioak sortutako arazoetan.

... aldeak
errespetatu eta
balioetsi eta
edonolako GIZARTE-
BAZTERKETA
gaitzetsi.

S

10. Norberaren, familiaren eta beste talde batzuen historia ezagutzeko interesa eta jakin-mina sustatu.
11. Banan-banako eskubideak berretsi eta betebeharrak betetzeko erantzukizuna bultzatu.
12. Sexuan, kulturen, egoera ekonomikoan oinarritutako bazterketa egon badagoela onartu eta gaitzetsi.
13. Sentsibiltatea sustatu, txirotasunaren, bazterketaren, bereizketaren eta gizarteke beste bidegabekeria batzuen aurrean.
14. Elkartasuna adierazi, beste pertsona, herri, kultura batzuen arazoen aurrean.
15. Ahozko hizkuntza erabili, ideiak, esperientziak eta sentimenduak trukatzeko. Jarrera abegitsua izan gainerakoen ekarpenen aurrean eta komunikazio-trukerako arauak hartu kontuan.
16. Hizkuntza eta lengoaiak balioetsi.
17. Gizartearen errealitate eleanitza modu egokian balioetsi.
18. Jarrera irekia eta abegitsua sustatu, gainerakoek euren ideiak adierazten dituztenean.
19. Sentsibiltatea bultzatu, zenbait elbarritasunen araberrako komunikazio-modu berezien aurrean.
20. Jarrera abegitsua eta oneslea sustatu, beste hizkuntza eta kultura batzuen aurrean.
21. Norberarenganako eta gainerakoenganako jarrera abegitsua garatu, ulertzeko eta ulertarazteko.

BALIOAK LANTZEKO ARIKETAK

6

Hona hemen zenbait ariketa. Era guztietako ikuspegiak kontuan hartuta, oso egokiak dira elkartasunerako, onarpenerako eta partaidetzarako balioak garatzeko orduan.

6.1

Ariketa sozio-dramatikoak

Neska-mutilek zenbait zeregin antzeztan dituzte, beste pertsona baten lekuan jartzen ikasteko eta egoerak, sentimenduak, emozioak... irudikatu eta islatzeko. Era guztietakoak izan ahal dira ariketak: zereginen jokoa, sozio-drama, antzezlanak, telebistako edo irratiko gidoiak, zuzeneko edo bideoak dokudrama...

6.2

Sormenezko ariketak

Esate baterako, "ideien euria"; talde-sorrerarako ariketa, banan-banako edo taldeko adierazpen artistikoa, musikala, plastikoa, gorputzekoa; esloganen sorrera; laburpen-esaldiak...

6.3

Esperientziak eraikitzeko talde-ariketak

- **Interes-guneak.** Gai interesgarri baten arabera, arloak, eremuak edo diziplinak antolatzen dira. Neska-mutilen premiak eta interesak ditu oinarri.
- **Proiektukako ikaskuntza.** Eguneroko bizimoduko egoerei (jaia prestatu, ikaskide bati apurtutako jostailua konpondu, lagunak egin...) edo gizarte-arazoei (ikastetxeko kulturen arteko harremanak, drogak...) aurre egiteko, borondatez hasitako lan-plana da.
- **Ikerketa-proiektuak.** Proposatutako gaia ikertu beharra dago ikasgelan edo aisialdi-taldean, taldeen bitartez. Teknika honetan, goimailako adimen-prozesuak lantzen dira; esate baterako, azterketa, laburpena,



6

ebaluazio kritikoa, adostasunera iristeko arrazoiketa, bai eta moral zein maitasun prozesuak ere, gai gatazkatsuak erabiltzen badira.

6.4

Lankidetzaz sustatzeko ariketak

Lankidetzarako taldean jokatu eta ikasiz gero, lehian eta banan-banako arrakastan oinarritutako beste ikuspegi tradizionalago batzuetatik nekez jorratu ahal diren gaitasunak sustatzen dira. Laguntzeko eta aldeak onartu, errespetatu eta ulertzeko loturak sortzen dituzte. Era berean, gizartearen balioespen handia duten trebetasunak sustatzen dituzte; esate baterako, taldean lan egiten jakitea, komunikatzen jakitea... Horrez gain, eremu irekia sortzen dute, pertsonak, euren eskemak oinarri, euren ezagutza eraikitzeko, elkarrizketa iraunkorraren eta kanpoko zein barruko borrokaren bidez.

6.5

Berdinen arteko tutorietza

Ikasle-bikote hauetan, batak jakin dakiena eta trebetasun zehatz bat daukana da eta besteari laguntzen dio. Oso garrantzitsua da ikasle guzti-guztietan trebetasunak aurkitzea, pertsonak zeregin

biak betetzeko aukera izan dezaten.

Irakasleak beste batzuek balioetsitako trebetasunak ez duten ikasleak trebatuko ditu euretako batean, gainerakoei erakusteko aukera izan dezaten. Horrela, bada, ikasle aurreratuenak ez dira beti izango irakaslearen informazioa edo eredia jasotzen dutenak eta gainerakoei irakasten dietenak.

... ikasle guzti-
guztietan aurkitu
TREBETASUNAK.

6.6

Pertsonen arteko
harremanetan
oinarritutako
arriketak

6

- **Onarpena, ezagutza eta konfiantza lantzeko aurkezpen ariketak eta jokoak.** Ariketa horiek elkarren arteko ezagutza jolas lasaiaren bidez sustatzea dute helburu: izenak, interesak, gustuak, premiak, ordezkatzan dituzten kulturetako zenbait alderdi.
- **Banan-banako eta taldeko erantzukizuna, partaidetza, araua lantzeko ariketak.** Egituratutako ariketa errazak izan ohi dira. Bertan, argi eta garbi dago zer egin behar den eta taldekide guztiek parte hartu behar dute.
- **Komunikaziorako eta lankidetzarako trebetasunak lantzeko ariketak.** Horretarako diseinatutako ariketak dira. Taldeko ariketa horietan, emaitza den lana ez da batuketa, taldekideen arteko komunikazioa beharrezkoa denez, entzuten, laburtzen... ikasten dutelako.
- **Gatazken konponbidea eta erabakiak hartzeko prozesua lantzeko ariketak.** Taldeak gatazkaren bat konpondu behar du edo erabakiren bat hartu behar du eta hori garatzeko prozesua irakasten zaio. Era berean, arloetan ere jorratu daiteke, erabaki baino lehen, arazoa konpontzeko zenbait urrats (arazoa antzeman, informazioa bilatu, konponbidea aukeratu eta plangintza egin, plangintza bete eta emaitzak ebaluatu) eman behar direla azaltzen duen lanaren bidez.
- **Kultura arteko trebetasunak eta jarrerak lantzeko ariketak.** Jordánen esanetan (Bartzelona, 1996), oso interesgarriak dira Kohlbergen "hezkuntza moralerako egitasmoak" edo "arazoak eztabaidatzeko" teknikak, E. Rathsen "balioak argitzeko" teknika eta "ulermen kritikorako" teknika, bai eta "gizarte zein maitasun ikuspegia" ere. Bertan, "gezurrezko" egoerak proposatzen dira, ikasleek bazterketa edo bereizketa egoerak bizi ditzaten. Harreman zuzenaz gain, harreman bikarioa, Lynchen "abiaburuen egiaztapena" eta dramatizazioak dira beste estrategia batzuk.

6.7

Sentsibilizazioarako jardunaldiak eta jaiak

Kulturen inguruko ospakizunak, engaiatutako taldeen, kultur elkarteen... partaidetzaren bitartez, ikastetxean, aisialdirako elkartean edo erkidegoko zentroan bertan bestelako taldeen esperientzia jakin batzuk islatzeko.

Jaiek ekitaldi batean bildu nahi dituzte egindako lanen laburpena eta proiektuaren amaiera, eta amaitu izanak ematen duen poztasuna adierazi nahi dute. Horretarako, esaldi, keinu, jai-adierazpen batean laburtzen dute ezagututakoa eta hausnartutakoa.

6.8

Sarea

Internet komunikatzeko hizkuntza eta bide berria da. Horri esker, informazioa lortu eta harremanak ezarri ahal dira zenbait prozeduraren bidez; esate baterako, txata, bat-bateko mezularitza, posta elektronikoa, foroak, banaketa-zerrendak... Beste kultura, gizarte-arazo, banan-banako arazo... batzuk ezagutzeko aukera eskaintzen du.

"ELKARREKIN BIZITZEN IKASTEN" EGITASMOA

7

8-12 urte arteko neska-
mutilentzako kultura arteko

hezkuntzarako proposamen pedagogikoa da,
eta eskoletan, familietan eta hezkuntza-
aisialdirako zentroetan erabili ahal da.

Helburu nagusia. Bestelako pertsonak eta kulturak errespetatu eta onartzeko jarrerak sustatu eta ezezagunaren gaitzespena sortzen duten aurreiritziak murriztu, kultura artekotasunari lehentasuna ematen dion eta balioetan oinarritzen den hezkuntzaren bidez.

Hartzaileak. 8-12 urte arteko neska-mutalak.

Erantzeko arloak

- Familia
- Eskola
- Hezkuntza-aisialdirako zentroa

Material didaktikoak. **ELKARREKIN BIZITZEN IKASTEN** proposamenak era guztietako materialak ditu oinarri. Esku artean duzun sarrerarako Gidaliburuaz gain, dramatizatutako sei pasarte eskaintzen ditu, bai eta euren unitate didaktikoa ere.

Pasarteak. Dramatizatutako sei istorio dira, eta hogeit hamar minutuko iraupena dute, gutxi gorabehera. Bizitzako abentura seriearen osagai dira. Kolonbiako neska-mutil batzuk dira protagonistak, eta eurentako bat itsua da. Euren familietan, ikastetxean eta auzoan garatutako eguneroko bizimodura eramaten gaituzte.



Unitate didaktikoak. Sei unitate didaktiko daude, bat pasarte bakoitzeko. Egitura berbera dute, eta honako epigrafe hauek antzematen dira:

- Argumentuaren laburpena.
- Sentsibilizaziorako lema nagusia.
- Unitate didaktikoaren ikuspegia.
- Helburuak:
 - Nagusia
 - Hezkuntza-helburuak eta helburu didaktikoak
- Zenbait hezkuntza-eremutarako orientabideak:
 - Familia
 - Eskola
 - Aisialdia
- Ariketak:
 - Sarrerarako eta sentsibilizaziorako ariketak
 - Pasarteaz aztertzeko ariketak
 - Hausnartzeko eta sakontzeko ariketak
 - Hiztegi-ariketak
 - Laburpen-ariketak
 - Azken ariketak eta konpromisoa hartzeko ariketak

Proposatutako irakaskuntza-ikaskuntza ariketen aurkezpenak bitartekarien lana erraztea dute helburu, lan hori hezkuntza formalean edo ez-formalean garatzen den kontuan hartu gabe. Eskolari dagokionez, Tutoretzaren, Hizkuntzaren eta Ingurunearen Ezagutzaren arloan kokatzen dira. Aisialdian oinarritutako hezkuntzarako erakundeei dagokienez, sei tipologiatan banatzen dira ariketak: sozio-dramatikoak, sormenezkoak, talde-erakuntzakoak, lankidetzaz sustatzekoak, harremanak bultzatzekoak eta jaiak eta jardunaldiak.



"ELKARRERKIN BIZITZEN IKASTEN" EGITASMOA

**LEMA
NAGUSIA**

IZENBURUA

**ARGUMEN-
TUAREN
LABURPEMA**

**UNITATERAEN
HELBURUA**

**BESTE PERTSONAREN
ONESPENA.**

"TALENTUA, ESTU ETA LARRI" [18'51"]

Hektor eta Sergio anaiak badira ere, ez dira inoiz berdinak izango. Aitak horixe bera nahi badu ere, ezinezkoa da berez. Pertsonak aukera-multzo errepikaezinak dira. Sergio ez dabil oso ondo ikasketetan, baina trebetasun artistiko ugari ditu. Aurtengo Zientzia Azoka Arte Azoka ere izan zen, eta Sergiok bere trebetasunak erakusteko aukera paregabea izan zuen.

Pertsonak, gure adineko neska-mutilak, batez ere, izaki originalak eta errepikaezinak direla onetsi, euren balioak, gaitasunak, aukerak eta aldeak errespetatu eta balioetsi eta edonolako bazterketa gaitzetsi.

**LEMA
NAGUSIA**

IZENBURUA

**ARGUMEN-
TUAREN
LABURPEMA**

**UNITATERAEN
HELBURUA**

**ZAILTASUNEI AURRE EGITEKO ELKARREN
ARTEKO LAGUNTZA.**

"HEGAN EGITEKO BELDURRIK GABE" [24'42"]

Marta eta Hektor hautagaiak dira ikasgelako ordezkarien hauteskundeetan. Talde osoak nahi du euren iritzia berri ematea eztabaida batean, baina Martak zailtasun handiak ditu jendaurrean hitz egiteko. Martarentzat ez zen batere erraza izan lagunen presioei eta hauteskunde-kanpaina ezin lehiakorragoari aurre egitea. Martaren lagunek, euretako batek, batez ere, laguntza handia ematen dio, zailtasunei aurre egiteko orduan.

Harreman konstruktiboak ezarri zailtasun bereziak dituzten ikaskideekin, elkartasunez jokatu, sexuan, gizarte-mailan, sinesmenetan eta banan-banako zein gizarteko beste ezaugarri batzuetan oinarritutako bazterketak gaitzetsi eta elkarren arteko laguntzarako jarrerak garatu egoera zailei aurre egiteko.

"ELKARRÉKIN BIZITZEN IKASTEN" EGITASMOA

**LEMA
NAGUSIA**

IZENBURUA

**ARGUMEN-
TUAREN
LABURPEA**

**UNITATERAEN
HELBURUA**

**PERTSONEN ONARPENA,
INOR BAZTERTU GABE.**

"EZKUTUKO JAIA" [22.53]

Yolanda haserre dago oso. Bera izan ezik, lagun guztiak gonbidatu dituzte Patricia Ayalaren urtebetetze-jaira. Mendekua hartzeko gogoa baretzeko, bere jaia etxean bertan antolatzeko erabakia hartzen du, gurasoen baimena izan gabe. Arinegi jokutzen duenez, egoera korapilotsua sortzen du lagunaren artean. Azkenean, den-dena konpontzen da, hitz egin eta gauzak argitu ondoren.

Harreman orekatuak eta konstruktiboak ezarri gizarte-egoera ezagunetan dauden pertsonekin, elkartasunez jokatu eta sexuan, gizarte-mailan, sinesmenetan eta banakako zein gizarteko beste ezaugarri batzuetan oinarritutako bazterketak gaitzetsi.

**LEMA
NAGUSIA**

IZENBURUA

**ARGUMEN-
TUAREN
LABURPEA**

**UNITATERAEN
HELBURUA**

**PERTSONENGAN KONFIANTZA IZAN ETA
EUREN KONFIANTZA IRABAZI.**

"SEKRETUA GUZTION AHOTAN" [21.58]

Martaren aita oso pozik dago. Lagun batek itsasora begira dagoen txabola utzi ahal diola esan dio, familiarekin oporretan joateko. Oso pozik dagoela adierazi nahi duenez, Martari azaltzen dio, baina inori ezer ez esateko eskatzen dio. Nolanahi ere, Martak Yolandari esaten dio, Yolandak Xabierri, Xabierrek Hektorri eta Hektorrek Sergiori. Azkenean, esamesak baino ez du bidaia egiten. Gainerakoak, ordea, planak eta mailetak eginda geratzen dira.

Konfiantzan eta beste pertsonen trebetasunen balioespenean oinarritutako banan-banako eta taldeko harremanak ezarri, komunikazioa eta elkarren arteko laguntza garatzeko eta elkarbizketa konstruktiboaren bidez elkarbizitzako arazoak konponbideari aurre egiteko.

LEMA NAGUSIA

IZENBURUA

ARGUMEN- TUAREN LABURPEMA

UNITATERAEN HCLBURUA

GEURE ERABAKIEN ONDORIOAK GEURE GAIN HARTU.

"ZEURE AKATSAK ZEURE GAIN HARTU" [23.06]

Pablok eta bere lagunak Xabier eta bere lagunak zirikatzen dituzte, euren gurasoen autoa garbitzen duten bitartean. Erronka jotzen dio, autoa gidatzen ez dakiela eta autoa garbitzen baino ez dakiela esaten diolako. Xabierrek pentsatu gabe onartzen du erronka. Beraz, aitaren baimenik izan gabe eta gidatzen jakin gabe, autoan sartzen ditu lagun guztiak eta... gertatu beharrekoa gertatzen da. Xabierrek ez du bere akatsa onartu nahi eta estaltzen ahalegintzen da. Hori dela eta, aita engainatu eta bere zentzugabekeriaren adierazgarri diren zenbait erabaki hartzen ditu.

Eguneroko esperientzia oinarri, zenbait talde, egoera, kultura, sorterritako... neska-mutikoen arteko elkarbizitzan sortutako arazoak antzeman eta galderak egin. Horretarako, hausnarketa eta erabakiak hartzeko prozesuak erabili, beste pertsona batzuekin lan egin, kanpoko presioei eutsi eta norberaren ekintzen ondorioak norberaren gain hartu.

LEMA NAGUSIA

IZENBURUA

ARGUMEN- TUAREN LABURPEMA

UNITATERAEN HCLBURUA

MUGARIK GABEKO OPORRAK, HESIRIK GABEKO OPORRAK.

"OPORRAK, SORTZEKO ASTIA" [22'02"]

Den-denak pozik daude oporrak iritsiko direlako: Martak loreen jaiari parte hartu nahi du, Xabierrek ez du ezertxo ere egin nahi eta Sergiok... Sergio gizagaixoa! Ikasi egin behar du, atzeratuta dabilenez, eskolako ikasgaiak errekuiperatu behar dituelako. Guztiakin konpromisoa hartzen duenez, Martari lagundu behar dio loreen jairako aulkitxo egiten. Era berean, amari lagundu behar dio erabilitako gauzen azokatxoan. Hainbat eta hainbat zeregin dituenek, ez ditu inoiz guztiak betetzen.

Jai eta opor eremua elkartasunerako, elkarrenganako laguntzarako eta hizkuntzaren, kulturaren, ohituren eta pertsonen arteko harremanen arloko kultura arteko esperientzien garapenerako esparrua dela onartu.

- ALLEGRET, J. LL. eta beste batzuk (1994): Sobre Intercularitat. Girona: Fundació Ser. Gi. Palahi.
- ANTÚNEZ, S. (1987): Proyecto educativo de centro. Bartzelona: Graó.
- BAÑARES, L. eta beste batzuk (1994): Niñas y niños gitanos en la escuela. Educación intercultural. Huesca: MEC – Huescako Lurralde Ordezkaritza.
- BAÑARES, L.; LALUEZA, R.; VICEN, M. J. (1996): Un enfoque curricular de la educación intercultural. Zaragoza: Zaragozako Unibertsitatea. ICE.
- BITARTE (1996): Guía de materiales - Materialen gida. Gasteiz: Eusko Jaurilaritza.
- BUXARRAIS, M. R. eta beste batzuk (1993): El interculturalismo en el curriculum. El racismo. Bartzelona: Rosa Sensat.
- CARBONELL I PARIS, F. (1995): Inmigración. Diversidad cultural, desigualdad social y educación. Girona: MEC. Argitalpen Zentroa. Idazkaritza Nagusia.
- AMANI TALDEA (1994): Educación Intercultural: Análisis y resolución de conflictos. Madril: Popular.
- DÍAZ-AGUADO, M. J.; BARAJA, A. (1993): Interacción educativa y desventaja sociocultural. Un modelo de intervención para favorecer la adaptación escolar en contextos inter-étnicos. Madril: CIDE.
- DÍAZ-AGUADO, M. J.; BARAJA, A. (1992): Educación y desarrollo de la tolerancia. Programas para favorecer la Interacción Educativa en contextos Étnicamente Heterogéneos. Madril: MEC.
- ELOSUA, M. R. eta beste batzuk (1994): Interculturalidad y cambio educativo. Hacia comportamientos no discriminatorios. Madril: Narcea.
- ETXEBERRIA, F. (1994): Educación Intercultural. Donostia: EHU.
- FERNÁNDEZ ENGUITA, M. (1996): Escuela y etnicidad. El caso del pueblo gitano.
- FERRER, E. eta LLUCH, X. (1993): Ejemplificaciones de unidades didácticas. Una perspectiva intercultural. Madril: MEC.
- FLECHA, R.; GÓMEZ, J. (1995): Racismo: No, gracias. Ni moderno, ni postmoderno. Bartzelona: El Roure.
- GALINO, A. eta ESCRIBANO, A. (1990): La educación intercultural en el enfoque y desarrollo del currículum. Narcea.
- GARAIGORDOBIL, M. (1992): Juego cooperativo y socialización en el aula. Un programa de juego amistoso, de ayuda y cooperación, para el desarrollo socio-afectivo en niños de 6 a 8 años. Madril: Seco Olea.
- GIMENO SACRISTÁN, J. (1992): Currículum y diversidad cultural. Educación y sociedad, 11. zenbakia, 127-153 orr.; eta ETXEBERRIA, F (1994): Educación Intercultural. Donostia: EHU.
- JORDÁN, J. A. (1994): La escuela multicultural: un reto para el profesorado. Bartzelona: Paidós.
- JORDÁN, J. A. (1996): Propuestas de Educación Intercultural para profesores. Bartzelona: CEAC.
- JULIANO, D. (1993): Educación Intercultural. Escuela y minorías étnicas. Madril: Eudema.
- LASA, BEGOÑA (1990): Papel del profesorado de E.G.B. con niños y niñas gitanas. Adarraren koadernoak 30; Bilbo: Adarra.
- LOVEFACE, M.: Educación Multicultural. Lengua y cultura en la escuela plural. Madril: Escuela Española.

- LLUCH, X.; RODAS, A. M.; SALINAS, J. (1995): Educación Intercultural. Módulo de Formación. Eje transversal. Valentzia: Generalitat Valenciana.
- LLUCH, X.; SALINAS, J. (1995): Programa d'educació en valors. Pla d'educació intercultural. Valentzia: Generalitat Valenciana.
- LLUCH, X.; SALINAS, J. (1996): La Diversidad Cultural en la Práctica Educativa. Materiales para la formación del profesorado en Educación Intercultural. Madrid: MEC
- MALGESINI, G.; GIMÉNEZ, C. (1997): Guía de conceptos sobre migraciones, racismo e interculturalidad. Madrid: La cueva del oso.
- MARTÍNEZ, ISABEL (COOR) (1995): La socialización en la escuela y la integración de las minorías: Perspectivas etnográficas en el análisis de la educación de los años 90. Madrid: Aprendizaje.
- MENDÍA, R. (COOR) (1997): Guía para la elaboración de proyectos integrados de aprendizaje en los programas de Garantía Social. Gasteiz: Eusko Jaurlaritz.
- MEROÑO I OTÓN, N. (1996): La práctica intercultural en el Desarrollo curricular de la Educación Primaria. Madrid: MEC.
- KULTURA ARTEKO HEZKUNTZARAKO MAHAI BEREZIA (1993): El tratamiento de los valores desde una perspectiva intercultural. Cuencako Topaketak: Pedagogia Berritzeko Mugimenduen Konfederazioa.
- MESA FRANCO, M.C.; SÁNCHEZ FERNÁNDEZ, S.: Educación y situaciones bilingües en contextos multiculturales. Estudio de un caso: Melilla. Madrid: CIDE.
- MICHELSON, L.; SUGAI, D.P.; WOOD, R.P (1987): Las habilidades sociales en la infancia. Evaluación y tratamiento. Bartzelona: Martínez Roca S.A.
- MUÑOZ SEDANO, A. (1997): Educación Intercultural. Teoría y práctica. Madrid: Escuela Española.
- OVEJERO, A. (1990): El aprendizaje cooperativo. Una alternativa eficaz a la enseñanza tradicional. Bartzelona: PPU.
- PEREDA, C.; PRADA, M.A. DE; ACTIS, W. (IOE TALDEA) (1996): La educación intercultural a prueba. Hijos de inmigrantes. Marroquíes en la escuela. Madrid: CIDE.
- PINEL, J. (1984): Fundamentos y técnicas grupales para E.G.B. Madrid: Marsiega S.A.
- RODRIGUEZ, M. (1995): La educación para la paz y el interculturalismo como tema. Bartzelona: Oikos tau.
- ESPAINIAKO PEDAGOGIA ELKARTEA (1992): Estatuko X. Pedagogia Biltzarra. Kultura arteko Hezkuntza Europa Bateratuaren ikuspegian. I. eta II. alea. Salamanca: Salamancako Lurralde Diputazioa.
- SORIA GUTIÉRREZ, A. L.: Educación Intercultural y prevención de las actitudes de violencia. Comunidad Educativa, 21. zenbakia. 1997ko apirila.
- TORRES, J. (1994): Globalización e interdisciplinariedad: el currículum integrado. Madrid: Morata.
- TORRES, J. (1992-93): Los silencios en la selección de la cultura en el currículum. Por una sociedad intercultural y sin racismo. Irakasleen eta Ijtoen arteko XII. Jardunaldiak. Bilbo: Adarra; eta ETXEBERRIA, F. (1994): Educación Intercultural. Donostia: EHU.
- VÁSQUEZ, A. eta MARTÍNEZ, I. (1996): La socialización en la escuela. Paidós: Bartzelona.
- ZZEE (1989): Cultura gitana. Propuestas para un trabajo intercultural en la escuela. Valentzia. Generalitat Valenciana.
- ZZEE (1996): Educació intercultural. Bartzelona: Generalitat de Catalunya.

© EDEX, 2003

Egileak:

Rafael Mendia eta Roberto Flores

Argitaratzailea:

EDEX

 Particular de Indautxu, 9. 48011 - Bilbao

 94 442 57 84  94 441 75 12

 edex@edex.es

 www.edex.es

ISBN:

84-9726-146-1

Obra osoaren ISBN: 84-9726-145-3

Lege gordailua: BI-3006-03

Mod.: 164651

"Gizalegezko kultura partekaturantz doan
eta gizakiaren eskubideetan oinarrituta
dagoen hezkuntzak soilik saihestuko du
desberdintasunek diferentziak sortzea, eta
berezitasunek etsaitasuna ekartzea."

Rodolfo Stavenhagen.

"Hezkuntzak altxorra dauka barruan".
DELORS TXOSTENA. UNESCO

Ekimenaren arduraduna:



Particular de Indautxu, 9
48011 Bilbao
www.edex.es • edex@edex.es

Kolaboratzailea:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA
Inmigrazio Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y
ASUNTOS SOCIALES
Dirección de Inmigración